

**Frankismoaren biktimei
laguntza emateko Programaren
legezkotasunaren analisisa**

**Análisis de legalidad del
Programa de ayudas a víctimas
del franquismo**



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas





Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURKIBIDEA

I. SARRERA.....	5
II. LEGE APLIKAGARRIAK	6
III. FRANKISMOAREN BIKTIMENTZAKO LAGUNTZA-ILDOA	7
IV. LAGUNTZEN AURREKONTUAREN ERABILERA	9
V. LAGUNTZA-ILDOAREN KUDEAKETAN IZANDAKO GASTUAK	10
VI. ONDORIOAK	11
I. INTRODUCCIÓN.....	13
II. LEGALIDAD APLICABLE.....	14
III. LÍNEA DE AYUDAS A VÍCTIMAS DEL FRANQUISMO	15
IV. EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA DE LAS AYUDAS	17
V. GASTOS INCURRIDOS EN LA GESTIÓN DE LA LÍNEA DE AYUDAS....	18
VI. CONCLUSIONES.....	19
ALEGACIONES	21

Vitoria-Gasteiz, 2006ko azaroaren 2a
Vitoria-Gasteiz, a 2 de noviembre de 2006





Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. SARRERA

Lan hau Eusko Legebiltzarreko Ogasun Batzordeak eskatuta egin da, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak 2006rako lan programan hala sartuta baitzuen.

Lan honen helburuak honako hauek izan dira:

- Dekretu arautzailetako araudi orokorra behar bezala betetzen duela egiaztatzea.
- Deialdia dekretu arautzailetara egokitzea.
- Espedienteen lagin bat aztertu eta laguntzak ematean legeak bete direla egiaztatzea.
- Ildo honen publizitaterako eta kudeaketarako egindako gastuak lortu eta ikuskatzea, aplikatu dakiekeen araudiari egokitzen zaien hala ez aztertuz.



II. LEGE APLIKAGARRIAK

Aplikagarriak diren legeen artean ondokoak azpimarra ditzakegu:

- 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 1/1994 Legegintzako Dekretua, Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruzko lege xedapenen Testu Bategina onartzen duena.
- 7/1997 Legea, dirulaguntzen eta laguntzen erregimena arautu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea aldatzen duena. (1/88 LD).
- 8/2002 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko 2003. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena; 2004. urtean luzatu egin ziren Aurrekontu Orokor horiek..
- 280/2002 Dekretua, azaroaren 19koa, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzkoa.
- 3/2003 Dekretua, urtarrilaren 14koa, 280/2002 Dekretua aldatzen duena.
- 301/2003 Dekretua, abenduaren 9koa, 280/2002 Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena.
- 75/2004 Dekretua, maiatzaren 4koa, 280/2002 Dekretua hirugarren aldiz aldatzen duena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.
- 2/2000 Errege Dekretu Legegilea, ekainaren 16koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen (HAKL) Testu Bategina onesten duena.



III. FRANKISMOAREN BIKTIMENTZAKO LAGUNTZA-ILDOA

Frankismoaren biktimentzako laguntza-ildoak 2000. urteko azaroan, Talde Mistoa-Ezker Batuak proposatuta Eusko Legebiltzarrak egindako ez-legezko proposamenean eta, ondoren, 2001eko azaroan, Grupo Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldearen ez-legezko proposamenaren aurrean legebiltzarreko talde guztiek aurkeztu eta guztien adostasunez onartutako transakzio-zuzenketan du jatorria.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak azaroaren 19ko 280/2002 Dekretua, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzkoa, kontuan hartuta ezarri du laguntza-ildo hori, eta 3.606 mila euroko laguntza baimendu du gutzira.

Laguntza horiek arautzen dituen 280/2002 Dekretuak onuraduntzat onartzen ditu, Amnistiari buruzko 46/1977 Legeak jasotako suposamenduen barruan presondegietan, diziplina-zentroetan edo kontzentrazio-esparruetan sei hilabeteko edo gehiagoko askatasun-gabetzea jasanak izanik, 1990eko eta 1992ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeetan eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Gaietako Neurriei buruzko 42/1994 Legean ezarritako kalte-ordainak jaso ezin izan zituztenak, askatasunik gabe igarotako denboraren baldintza, orduan hiru urtekoa, betetzen ez zutelako edo 1990-12-31n 65 urte beteta ez zituztelako.

2003-01-14an, 3/2003 Dekretua, 280/2002 Dekretua lehen aldiz aldatzen zuena, onartu zen eta, dokumentazioa lortzeko eragozpenak zeudenez, eskaerak aurkezteko epea 2003ko otsailaren 28ra arte luzatu zuen.

Ekitaldi horretan bertan, Ekonomia Kontrolerako Bulegoak (EKB) lehen dekretuaren proiektuaren ekonomia eta arau txostenean jada adierazi zuen bezala, jasotako eskaeren kopuru handia ikusita, abenduaren 9ko 301/2003 Dekretua, 280/2002 Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena, onartu zen diru kopurua 18.000 mila eurotaraino handitzeko.

2004ko maiatzaren 4an 75/2004 Dekretua, 280/2002 Dekretua hirugarren aldiz aldatzen duena, onartu zen laguntzak finantzatzeko zenbatekoa 21 milioi eurotaraino handitzeko.

8.680 eskaera aurkeztu ziren, 5.968 kasutan ukatu egin zen laguntza, batez ere ondoko arrazoiengatik:

- Askatasunik gabe igarotako denbora egiaztatzeko beharrezkoa den dokumenturik ez aurkeztea, halakoak lortzea oso zaila delako.
- Soldadu Langileen Diziplina Batailoietan (BDST) egindako egonaldiak "askatasun-gabetze eraginkortzat" hartuak ez izatea.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Ukopen horien ondorioz eta 280/2002 Dekretuaren interpretazioarekin bat ez zetozenez, 2005eko martxoan, Espainiako Gerra Zibileko Biktimen Elkarteak (GEUREAK 1936) eta Arartekoak 280/2002 Dekretuaren aplikazioari buruzko txosten bat aurkeztu zioten Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, bertan Dekretu horren aplikazioak eragindako gatazka konpontzeko baliagarriak izan daitezkeen ondoko neurriak hartzea iradokiz:

1. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila ere dokumentuak bilatzeaz arduratzea.
2. Laguntzak ukatzeko erabakiak arrazoitzea.
3. Berrikusteko errekurtsio berezia ez diren beste aukera batzuk bilatzea.
4. Epe barruan aurkeztu ez ziren eskaerak izapidetzeko dekretu berri bat argitaratzea.
5. Soldadu Langileen Diziplina Batailoiak: irizpideak berriz aztertu eta BDSTetan egondako denbora 280/2002 Dekretuan aurreikusitako konpentsazioak jasotzeko eskubiderako egiaztapen gisa kontatzea.

Ondoren, Amnistiaren 46/1977 Legean jasotako suposamenduen ondorioz, 1990eko Estatuko Aurrekontu Orokorraren 4/1990 Legean hiru urtez edo denbora luzeagoan presondegietan askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzat aurreikusitako kalte-ordaina pertsona bati ukatu izanaren aurrean, 2005eko irailean, Auzitegi Konstituzionalak, 2005-07-04ko 180/2005 epaian, parekatu egin zuen BDSTetako egonaldia lege horretan eskatutako askatasun-gabetze eraginkorrarekin.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, 2005eko maiatzean, enpresa bat kontratatu zuen 280/2002 Dekretuaren ondorioetarako askatasun-gabetzeari buruzko dokumentuak bilatzeko; izan ere, laguntzak eskatu zituztenetako askok ez zuten lortu askatasun-gabetze eraginkorra egiaztatzeko dokumenturik. Dokumentazioa lortu ahala, ofizioz baliogabetu dira laguntzen ukapenak, helegitea aurkeztua izan den ala ez kontuan hartu gabe.



IV. LAGUNTZEN AURREKONTUAREN ERABILERA

280/2002 Dekretuak 6 hilabeteko epea ematen zuen aurkeztutako eskaerei buruzko erabakia hartzeko eta, beraz, hasiera batean prozedura osoa 2003-05-29a baino lehen amaitzea aurreikusita zegoen. Hala ere, hasieran aurreikusitako denboran eskatutako dokumentuak lortzeko zeuden zailtasunak eta aurkeztutako eskaeren kopuru handia kontuan hartuta, laguntza horien izapideek aurreikusitako epeak gainditu dituzte eta Gizarte Gaietako Sailburuordeak 2004-05-07an ebatzi du deialdia; EHAAn, berriz, 2006-03-14an argitaratu da.

EKITALDIA	Mila €			
	A	D	O	P
2002	-	-	-	-
2003	-	-	-	-
2004	23.010	22.966	22.949	21.734
2005	2.677	2.628	2.628	2.620
GUZTIRA	25.687	25.594	25.577	24.354

Guztira 25.577 mila euro ikuskatu dira: horietatik 20.769 mila euro deialdiaren ebazpenetik datoz eta 4.808 mila euro aurkeztutako helegiteen kalkulari eta Sailak berak ofizioz egindako azterketa berriei dagozkie. Uztailaren 4ko Auzitegi Konstituzionalaren 180/2005 Epaiak eraginda eta askatasun-gabetzea egiaztatzeko dokumentuen bilaketarako kontratatu den enpresak aurkeztutako dokumentazio berria kontuan hartuta egin dira azterketa berri horiek.



V. LAGUNTZA-ILDOAREN KUDEAKETAN IZANDAKO GASTUAK

Zuzenean laguntza-ildoarekin erlazionatutako gastuak aztertu dira (kudeaketa, publizitatea, dokumentuen bilaketa, etab.) eta, kontzeptuen arabera bildu ondoren, gastu bakoitza egin den urteari egotzi zaio, finantzatu duen aurrekontua zein izan den kontuan hartu gabe.

					Mila €
AZALPENA	2002	2003	2004	2005	GUZTIRA
Dokumentu- eta informatika- kudeaketa	12	217	105	-	334
Dokumentuen bilaketa	-	24	35	118	177
Publizitate-kanpaina	382	-	-	-	382
Aholkularitza-lanak	-	78	-	-	78
Dekretua baino lehenagoko lanak	12	-	-	-	12
Biktimei egindako omenaldiak	-	-	-	217	217
Beste zenbait gastu	-	2	9	-	11
GUZTIRA	406	321	149	335	1.211



VI. ONDORIOAK

Epaitegi honen iritziz, ondoko legeak ez dira bete:

Deialdia dekretu arautzaileetara egokitzea eta hauek araudi aplikagarriara egokitzea.

- Aurreikusita zegoen 3.600 mila euroko gastuari aurre egiteko 258 mila euroko aurrekontuko diru-izendapenik gabe onartu eta argitaratu zen 280/2002 Dekretua. Gainera, gastuaren kalkulu hori ez zen nahikoa une horretan eskura zeuden datuen arabera eta Dekretu hark esleitutako bakarkako laguntzen arabera. Ekonomia Kontrolerako Bulegoak (EKB) balioetsi zuen aurreikusitako kredituek kalkuluen arabera izan zitezkeen eskaeren %10 bakarrik estaliko zutela. Dekretu honek ez du zehazten “askatasun-gabetze eraginkortzat” zer ulertzen den, eta azterketaz arduratzen den batzordea da halakorik noiz izan den eta noiz ez erabakitzen duena, Amnistiari buruzko 46/1977 Legeak antzeko kasuetarako emandako interpretazioa onartuz.
- Errekurtsoen kalkuluen eta ofiziozko azterketa berrien ondorioz, Sailak 4.577 mila euro onartu ditu 75/2004 Dekretuak baimendutako gehienezko mugatik gora, hark 21.000 mila eurotan finkatu baitzuen muga.

Laguntza-ildoaren kudeaketan izandako gastuari aplika dakioken araudia betetzea.

Laguntza-ildoaren kudeaketak eta publizitateak eragindako gastuak, guztira 1.211 mila euro, ikuskatu eta ondoko arau-haustek antzeman ditugu:

- 2002an hiru enpresek egindako publizitatearen eta mailing-aren gastuak, guztira 382 mila eurokoak, aurrekontuko diru-izendapenik gabe egin eta zuzenean esleitu ziren, publizitatearen eta lehiaren printzipioak hautsiz. EKBk espediente horien kontrako txostena egin zuen, baina Gobernu Kontseiluak baliozkotu egin zituen 2003-06-03ko erabakiaren bitartez.
- 2003ko eta 2004ko ekitaldietan enpresa berberak egindako kudeaketa dokumental eta informatikoaren gastuak, 20 mila eurokoak, eta dokumentuak bilatzeko gastuak, 59 mila eurokoak, kontratuaren xedea zatikatuta egin ziren, publizitatearen eta lehiaren printzipioak bete gabe.
- 2003ko maiatzean lehiaketa publikoaren bitartez 147 mila eurogatik esleitutako dokumentu-basearen trataera informatikoa eta balorazioa egiteko kontratu bat urte bereko abenduan aldatu egin zen 117 mila eurotan, eta horrek %80 handitu zuen esleipenaren balioa. EKBk aldaketa horren kontrako txostena egin zuen, jarduera berrien kostuari zegozkion zehaztapen eta kuantifikazio ekonomikoak azaltzen ez zirelako, eta ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuak, EAEko Kontratazio Erregimenari buruzkoak, 7.4.a) artikuluan jatorrizko kontratuaren %25etik gorako aldaketetarako nahitaez xedatzen duen Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren txostenik ez zegoelako.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Aholkularitza-lanei dagozkien hainbat faktura aurkitu dira, guztira 78 mila eurokoak, eta hauei dagozkien zerbitzuak Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean jasotako aurreikuspenen arabera kontratatuak izan behar zuten.

ONDORENGO GERTAKARIAK

2006. urtean, sailak dekretu berri bat onartu eta argitaratu zuen, otsailaren 14ko 22/2006 Dekretua, 280/2002 Dekretuaren deialdian eskaerarik aurkeztu ez zuten edo garaiz kanpo aurkeztu zuten pertsoneri beste aukera bat emateko. Dekretu honek BDSTetako egonaldiak askatasun-gabetze gisa jasotzen ditu. Jarduera hori aurreko deialdiko espedienteen azterketa berriarekin batera egingo da, BDSTetako egonaldiak askatasun-gabetzearen denbora gisa kontatzeko xedez, haien konpentsazioaren ondorioetarako. Bi jarduera horiek finantzatzeko kreditua 10.200 mila eurokoa da.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. INTRODUCCIÓN

Este trabajo se realiza a petición de la Comisión de Hacienda del Parlamento Vasco, que el Pleno del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas incluyó dentro del Programa de trabajo para 2006.

Los objetivos de este trabajo son:

- Verificar la correcta adaptación a la normativa general de los decretos reguladores.
- Adaptación de la convocatoria a los decretos reguladores.
- Análisis de una muestra de expedientes en los que se ha comprobado el cumplimiento de legalidad de su concesión.
- Obtención y revisión de los gastos realizados para la publicidad y gestión de esta línea, analizando su adaptación a la normativa que les sea aplicable.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. LEGALIDAD APLICABLE

Entre la legislación aplicable podemos destacar la siguiente:

- Decreto Legislativo 1/1997, que refunde las disposiciones legales vigentes sobre Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.
- Decreto Legislativo 1/1994, que refunde las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi.
- Ley 7/1997, por el que se regula el régimen de subvenciones y ayudas y se modifica la Ley de Principios Reguladores de la Hacienda General del País Vasco (DL 1/88).
- Ley 8/2002 por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma para 2003, y que han resultado prorrogados en 2004.
- Decreto 280/2002 de 19 de noviembre, sobre compensación a quienes sufrieron privación de libertad por los supuestos objeto de la Ley de Amnistía.
- Decreto 3/2003 de 14 de enero de modificación del Decreto 280/2002.
- Decreto 301/2003 de 9 de diciembre de segunda modificación del Decreto 280/2002.
- Decreto 75/2004 de 4 de mayo de tercera modificación del Decreto 280/2002.
- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Real Decreto Legislativo 2/2000 de 16 de junio por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas (LCAP).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. LÍNEA DE AYUDAS A LAS VÍCTIMAS DEL FRANQUISMO

La línea de ayudas a víctimas del franquismo tiene su razón de ser en una proposición no de ley del Parlamento Vasco de noviembre de 2000, a propuesta del Grupo Mixto-Ezker Batua y, posteriormente, en noviembre de 2001, en una enmienda transaccional, presentada por todos los grupos parlamentarios a la propuesta no de ley del Grupo Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, aprobada en la Cámara por unanimidad.

El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales instaure esta línea de ayudas a la luz del D.280/2002 de 19 de noviembre sobre compensación a quienes sufrieron privación de libertad por los supuestos objeto de la Ley de Amnistía, autorizando una ayuda total de 3.606 miles de euros.

El D.280/2002, que regula estas ayudas, reconoce como beneficiarios a quienes sufrieron privación de libertad por un periodo igual o superior a 6 meses en establecimientos penitenciarios, disciplinarios o campos de concentración, dentro de los supuestos contemplados en la Ley 46/1977 de Amnistía, y que no pudieron acceder a las indemnizaciones establecidas en las Leyes de Presupuestos Generales del Estado para 1990 y 1992, y en la Ley 42/1994 de Medidas Fiscales, Administrativas y de Orden Social, por no cumplir con el requisito del tiempo transcurrido en privación de libertad, entonces tres años, o no haber cumplido los 65 años de edad a 31.12.1990.

El 14.01.03 se aprueba el D.3/2003, primera modificación del D.280/2002, que, debido a las dificultades para la obtención de documentación, prorroga el plazo de presentación de las solicitudes hasta el 28 de febrero de 2003.

Este mismo ejercicio, visto el número de solicitudes recibidas, ya apuntado por la OCE en su informe económico normativo del proyecto del primer decreto, se aprueba el Decreto 301/2003 de 9 de diciembre, segunda modificación del D.280/2002, en el que se incrementa la dotación hasta los 18.000 miles de euros.

El 4 de mayo de 2004 se aprueba el D.75/2004, tercera modificación del D.280/2002, que incrementa el importe destinado a la financiación de ayudas hasta los 21 millones de euros.

Se presentaron 8.680 solicitudes, en 5.968 casos se denegó la ayuda, principalmente por los siguientes motivos:

- No presentación de la documentación necesaria que pudiera justificar el tiempo de privación de libertad, debido a la dificultad existente para su obtención.
- No consideración de la estancia en los Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores (BDST) como “privación de libertad efectiva”.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A resultas de estas denegaciones, y por disconformidad con la interpretación del D.280/2002, la Asociación de Víctimas de la Guerra Civil Española GEUREAK 1936 y el Ararteko, en marzo de 2005, entregan al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales un informe sobre la aplicación del D.280/2002, en el que sugieren la adopción de las siguientes medidas que podrían servir para resolver el conflicto creado por la aplicación de dicho Decreto:

1. Implicación del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales en la localización de documentación,
2. Motivación de las resoluciones denegatorias,
3. Otras alternativas al recurso extraordinario de revisión,
4. Publicación de un nuevo decreto que permita tramitar las solicitudes que no se presentaron en plazo,
5. Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores: se recomienda que se revisen los criterios y se compute la estancia en BDST a efectos de acreditación del derecho a percibir las compensaciones económicas previstas en el Decreto 280/2002.

Posteriormente, en setiembre de 2005, el Tribunal Constitucional, en sentencia 180/2005 de 04.07.05, ante una situación similar a resultas de la denegación a una persona de la indemnización prevista en la Ley 4/1990 de Presupuestos Generales del Estado de 1990 para las personas que sufrieron pérdida de libertad en establecimientos penitenciarios durante tres o más años como consecuencia de los supuestos contemplados en la Ley 46/1977 de Amnistía, equipara la estancia en los BDST con la privación de libertad efectiva requerida en dicha ley.

El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, en mayo de 2005, contrató a una empresa para la búsqueda de documentación sobre privación de libertad a los efectos del D.280/2002, porque muchos de los solicitantes no habían conseguido la documentación que acreditara la privación de libertad efectiva. Según se va consiguiendo documentación se van revocando de oficio las denegaciones de ayudas, independientemente de que se hayan recurrido o no.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA DE LAS AYUDAS

El D.280/2002 daba un plazo de resolución de las solicitudes presentadas de 6 meses, por lo tanto, inicialmente estaba previsto que el procedimiento finalizara antes del 29.05.03. Sin embargo, como consecuencia de las dificultades de obtención de la documentación requerida en el tiempo inicialmente previsto y el gran número de solicitudes presentadas, la tramitación de estas ayudas ha superado los plazos previstos y ha sido el 07.05.04 cuando el Viceconsejero de Asuntos Sociales ha resuelto la convocatoria, no publicándose en el BOPV hasta el 14.03.06.

EJERCICIO	Miles de €			
	A	D	O	P
2002	-	-	-	-
2003	-	-	-	-
2004	23.010	22.966	22.949	21.734
2005	2.677	2.628	2.628	2.620
TOTAL	25.687	25.594	25.577	24.354

En total se han reconocido 25.577 miles de euros, de los que 20.769 miles de euros provienen de la resolución de la convocatoria y 4.808 miles de euros corresponden a estimación de recursos presentados y a revisiones de oficio llevadas a cabo por el propio Departamento, motivadas por la Sentencia del Tribunal Constitucional 180/2005 de 4 de julio y por la nueva documentación aportada por la empresa contratada para la búsqueda de documentación justificativa de privación de libertad.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. GASTOS INCURRIDOS EN LA GESTIÓN DE LA LÍNEA DE AYUDAS

Se han analizado los gastos directamente relacionados con la línea de ayudas (gestión, publicidad, localización de documentación, etc.), y se han agrupado por concepto e imputado al año en que se ha realizado cada gasto, independientemente del presupuesto que los ha financiado.

					Miles de €
CONCEPTO	2002	2003	2004	2005	TOTAL
Gestión documental e informática	12	217	105	-	334
Búsqueda de documentación	-	24	35	118	177
Campaña publicitaria	382	-	-	-	382
Trabajos de asesoramiento	-	78	-	-	78
Trabajos previos al decreto	12	-	-	-	12
Homenajes a las víctimas	-	-	-	217	217
Otros gastos	-	2	9	-	11
TOTAL	406	321	149	335	1.211



VI. CONCLUSIONES

En opinión de este Tribunal se han observado los siguientes incumplimientos de legalidad:

Adaptación de la convocatoria a los decretos reguladores y éstos a la normativa aplicable

- El D.280/2002 fue aprobado y publicado sin consignación presupuestaria de 258 miles de euros para atender el gasto previsto de 3.600 miles de euros. Además, dicha estimación de gasto resultaba insuficiente de acuerdo con los datos disponibles en aquel momento y en función de las ayudas individuales asignadas por dicho Decreto. La OCE estimó que los créditos previstos sólo cubrirían un 10% de la demanda potencial estimada.
- Debido a estimaciones de recursos y revisiones de oficio, el Departamento ha reconocido 4.577 miles de euros por encima del límite superior autorizado por el D.75/2004 que lo fijó en 21.000 miles de euros.

Cumplimiento de la normativa aplicable al gasto incurrido en la gestión de la línea de ayudas

Hemos revisado los gastos ocasionados por la gestión y publicidad de la línea de ayudas por un total de 1.211 miles de euros, detectando los siguientes incumplimientos:

- Los gastos de publicidad y mailing realizados en 2002, con tres empresas por un total de 382 miles de euros, fueron hechos sin consignación presupuestaria y adjudicados de forma directa incumpliendo los principios de publicidad y concurrencia. Estos expedientes fueron informados negativamente por la OCE y convalidados por Acuerdo de Consejo de Gobierno de 03.06.03.
- Gastos de gestión documental e informática por 70 miles de euros y de búsqueda de documentación por 59 miles de euros, llevados a cabo durante los ejercicios 2003 y 2004 por la misma empresa, fueron realizados fraccionando el objeto del contrato, no respetando los principios de publicidad y concurrencia.
- Un contrato para el tratamiento informático y valoración de base documental, adjudicado en mayo de 2003 mediante concurso público por un importe de 147 miles de euros, en diciembre del mismo año fue objeto de un modificado por un importe de 117 miles de euros, que supuso un incremento del 80% del valor de adjudicación. Este modificado fue informado negativamente por la OCE por la falta de concreción y cuantificación económica del coste de las nuevas actuaciones, y por la falta del informe de la Dirección de Patrimonio y Contratación que el artículo 7.4.a) del D.136/1996 de 5 de junio sobre el Régimen de Contratación en la CAE obliga en los casos de modificaciones superiores al 25% del contrato original.
- Se han detectado facturas por trabajos de asesoramiento por un importe total de 78 miles de euros, cuyas prestaciones deberían haberse contratado de acuerdo con las previsiones de la Ley de Función Pública Vasca.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HECHOS POSTERIORES

En 2006, el Departamento aprueba y publica un nuevo decreto, el D.22/2006 de 14 de febrero, para dar una nueva posibilidad a las personas que no presentaron la solicitud a la convocatoria del D.280/2002 o lo hicieron extemporáneamente. En este Decreto se contempla la estancia en los BDST como tiempo de privación de libertad. Esta actuación se simultaneará con la revisión de expedientes de la anterior convocatoria con la finalidad de contar como tiempo de privación de libertad la estancia en los BDST a efectos de su compensación. El crédito destinado a la financiación de ambas actuaciones es de 10.200 miles de euros.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGACIONES AL APARTADO VI. CONCLUSIONES

Con carácter general hay que señalar que ninguna de las personas solicitantes que cumpliera los requisitos del Decreto 280/2002, ha dejado de percibir su compensación por crédito insuficiente.

Cumplimiento de la normativa aplicable al gasto incurrido en la gestión de la ayudas.

En lo que se refiere a los gastos de gestión documental e informática y de búsqueda de documentación, de los ejercicios 2003 y 2004, no estamos ante un fraccionamiento del objeto del contrato sino ante objetos distintos puestos de manifiesto a lo largo de la vigencia de cada contrato.

En cuanto a la modificación del contrato para el tratamiento informático, señalar que no es el porcentaje de incremento, que viene obligado por el desenvolvimiento de la nueva realidad sobre la que el contrato opera y que es lo que da lugar a la modificación, el que merece reproche, de hecho la OCE no se refiere al mismo en su informe, sino las deficiencias de tramitación del modificado, que deben entenderse como de menor entidad.

Se recurrió a personal externo, mediante contratos de asesoramiento porque ante la insuficiencia de medios propios y por el claro carácter temporal y finito de esta línea de ayudas no se consideró necesario ni conveniente recurrir a una ampliación de los medios personales de la administración.